

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Negozia funtzionatzeko hiru jarduera garrantzitsu egin behar dira:

-Ekoizpena: Lehenik eta behin, guk plakak egokituko ditugu, eta, gero, bi aukera daude: bezeroa gure tailerrera etorri eta tailerrean instalatzea, edo, beste alde batetik, materialak gure bezeroaren etxera eraman eta han instalatzea. Azkenik, kontzesionarioei saltzen bazaizkie, plakak egokituak salduko ditugu, baina haiek instalatuko dituzte.

-Arazoak konpontzea: Plaka hausten bada edo funtzionatzeari uzten badio, bezeroek gure telefonoa eta gmail-a izango dituzte eskura. Akats oso handia bada, gure teknikaria joango da bezeroraren etxera zein den akatsa ikusteko eta konpontzeko. Aldiz, akats oso txikia bada edo konponbide erraz eta azkarra badu, gure blogean begiratu dezakete bezeroek, etxetik konpontzeko.

-Plataforma edo Sareko jarduerak: Gure teknikaria (Nahia Aldama) arduratuko da gure bloga kudeatzeaz, mantentzeaz eta bultzatzeaz, non bezeroek produktua erosi, produktuari buruzko informazioa jaso eta zalantzak argitu ahal izango dituen.

